



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



2026

2025eko Memoria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

2025eko Memoria

› Aurkezpena

› 1. Azterlan kuantitatiboak

- › Lankidetzak

› 2. Azterlan kualitatiboak

- › 1.1. Sektore-azterlanen lerroa
- › 1.2. Kulturaren finantzaketa eta kultura-politikak
- › 1.3. Joerak

› 3. Kulturklik

- › Marka-nortasun eta webgunearen birdiseinua
- › Hobekuntzak atarian
- › Publizitate kanpaina
- › Argitaratutako edukiak
- › Erabileraren datuak

› 4. Komunikazioa

- › Webgunea
- › Power BI
- › Sare sozialetako estrategia
- › 20. urteurrena
- › Prentsa-oharrak

Laguntza teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

Aurkezpena

Memoria honek Kulturaren Euskal Behatokiak 2025ean egindako lana laburbiltzen du, bai ikuspegi kuantitatibotik, bai ikuspegi kualitatibotik.

Estatistikaren arloan, Behatokiaren eragiketek baldintzatzen dute programa: Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2024ko inkestaren emaitzak jakitera ematea, eta arteen eta kultura-industriren estatistikaren eta sormen-industriren estatistikaren emaitzen azterketa.

Nabarmentzekoak dira, halaber, beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako azterketak; hala nola Eustatekin egindakoak, eta unibertsitateekin egindakoak, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin eta EHUrekin sinatutako hitzarmenen bidez.

Arlo kualitatiboan, proposamenean zenbait azterketa sartzen dira, sektorearen agenda markatzen duten gaiei buruzkoak, testuinguru sozioekonomiko orokorrari buruzkoak eta kultura-politikari buruzkoak. Oraingo honetan, besteak beste, inpaktu ekonomikoaren azterketak egin dira, bai eta genero-azterketak ere.

Kulturkliken inguruan etengabe egiten den lanak eta komunikazioaren bidez Behatokiaren lana ezagutarazteko ahaleginak osatzen dute 2025. urtean egindako lana.

1. Azterlan kuantitatiboak

Estatistikaren arloan, Behatokiaren berezko lan estatistikoak dakarren erritmoak helburu hauek izan ditu 2025ean:

- Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkestaren (2024) emaitzak jakitera eman eta hedatzea. Emaitzen 4 txosten egin dira, Euskal Herriari, EAERI, Nafarroako Foru Komunitateari eta Iparraldeari buruzkoak.
- Arteen eta kultura-industrien 2023ko estatistikaren eta Sormen-industrien 2023ko estatistikaren emaitzen azterketa.
- Kulturaren eta sormen-sektoreetan egindako inbertsio publikoaren estatistiken landa-lana prestatzea.

Lankidetzak

Behatokiak akordioak ditu unibertsitate-eremuan ikerkuntzan diharduten bi erakunderekin:

- Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deustu Fundaziokoa: kultura-eta sormen-industrien posizionamendu-azterlanak.
- UPV/EHUko NOR Ikerketa taldea, Applika proiektuan: gazteen ikus-entzunezko kontsumoari buruzko azterlanak.

Bestalde, azterlan bat egin da kulturaren balio publikoari buruzko adierazle-sistema bat diseinatzeke.

Eta, azkenik, eta beste esparru batean, Behatokiaren eta Eustaten arteko lankidetzaz ere nabarmendu behar da.

2. Azterlan kualitatiboak

Bloke honetan sartzen dira, planteamendua edo irismena dela eta, estatistikaren esparru hutsetik harago doazen azterlanak.

Zenbait gai biltzen ditu: sektorea aztertzeko gaiak eta lanketak, sektore horiek ordezkatzeko dituzten erakundeekin lankidetzan egiten direnak; kulturaren kudeaketan eta kultura-politikan eragiten duten gaiak, erabaki informatuak hartze baliagarriak izan nahi dutenak; eta azterlan prospektiboago batzuk, joera eta gai berritzaileak aztertzea helburu dutenak.

2.1. Sektore-azterlanen lerroa

Emakumeen presentzia ikus-entzunezkoetan. Emakumeek arte bisualetan eta ikus-entzunezkoetan duten presentziari buruzko lehen azterlana egin eta ia hamarkada bat geroago, Behatokiak,

ikus-entzunezko ekoizpenaren sektoreko elkarteekin eta profesionalekin lankidetzan, azterlan bat egin du jakiteko zer egoeratan dagoen eta zer bilakaera izan duen emakumearen presentziak euskal ikus-entzunezkoetan azken urte hauetan, kontuan izanda sektorea une gorenean dagoela, bai jarduera handia duelako, bai ekoizpenak aintzatespen handia izaten ari direlako.

2.2. Kulturaren finantzaketa eta kultura-politikak

dFERIA ekitaldiaren inpaktu ekonomikoaren azterketa. Azterketa pilotu bat da: Behatokiak diseinatu duen analisi-eredu bat aplikatu da, kultura-ekitaldiek eta -ekipamenduek zer inpaktu ekonomiko izan duten aztertzeko eredu bat. Arlo horretan azterlanak egin behar dituzten kultura-eragileek erabiltzeko tresna izateko sortu

da eredu, eta nola funtzionatzen duen aztertu da dFERIAren 2025eko edizioan, Donostia Kulturarekin koordinatuta.

Lurraldea-Hizkuntza ardatzaren inguruko parte-hartze kulturalaren emaitzen azterketa.

Euskarazko parte-hartze kulturalaren azterketa deskriptibo bat egin da, EAEko parte-hartze kulturalari buruzko 2023ko inkestak ematen dituen adierazleen multzoa kontuan hartuta (motibazioak, praktikak, moduak, etab.), partaidetza horren ezaugarriak ahalik eta zehatzen adierazteko. Txostenaren helburua da, datu jakin batzuetan oinarrituta, zerbitzu publikoei laguntzea etorkizunean izan behar dituzten helburuetan eta konpromisoetan.

Azterlan instrumentalak. Dosierrak egin dira kultura-adierazleei eta kulturaren BEZari buruz, erabaki informatuak hartzen laguntzeko.

2.3. Joerak

Liburutegien papera alfabetizazio

mediatikoan. Testuinguru komunikatibo gero eta suminduago batean, desinformazioz betea eta gorroto-diskurtsoek kutsatua, txosten honek alfabetizazio mediatikoaren kontzeptuaren gaineko gogoeta bat eskaini nahi du. Horretarako, kontzeptuaren beraren garapena aztertzen da, gaur egungo formulaziora iritsi arte, nazioz gaindiko erakundeek alfabetizazio mediatikoaren sustapen-ekimenak identifikatzen dira eta hausnartzen da zer eginkizun izan dezaketen liburutegiek herritar kritikoak eta emantzipatuak izan daitezen. 2025ean 2024aren amaieran liburutegiek esparru horretan izan dezaketen zeregina aztertzekeo hasitako azterlana osatu da.

3. Kulturklik

Kulturklik euskal kulturaren erreferentziako ataria da, Euskal Herriko kultura-eragile guztiekin partekatzen dena, haien kultura-ekitaldiak eta beste eduki interesgarri batzuk zabaltzeko. Bi atal nagusi ditu, bata orokorra, eta bestea kulturako sektore profesionalentzako. Gainera, datu-biltegi handi bat da ataria, eta EAEko kulturaren egoera aztertzeko oso datu erabilgarriak biltzen ditu.

Marka-nortasun eta webgunearen birdiseinua

Behatokiak marka-estrategia definitzeko eta webgunea birdiseinatzeko prozesu bati ekin dio. Prozesu horrek Kulturkliken marka-nortasun berria islatuko du, eta gailu digitalen egungo erabilera-ohituretara egokituko da.

Hobekuntzak atarian

- **Hizkuntzen araberako sailkapena:** hizkuntza eremuaren balioak birdefinitu dira agendan eta sorkuntzetan, aukera posible guztiak biltzeko, eta eremu berri bat sortu da zinema-ekitaldietan eta ikus-entzunezkoen ekitaldietan azpigituluen hizkuntzaren berri emateko.
 - **Egoitzen deialdiak:** bi eremu berri sortu dira “Egonaldiak eta mentoringa” motako deialdietan: lekua eta iraupena.
- Barne-ustiapeneko adierazle berriak:**
- Edukiera handiko ekipamenduetarako adierazlea.
 - Kultura-arlokoak soilik diren deialdiak identifikatzeko adierazlea.

Publizitate kanpaina

2025eko udan eta Gabonetan “Tenemos plan / Badugu plana” kanpaina jarri zen abian, asmo argi batekin: herritarrak gonbidatzea plan kulturalak modu “erraz eta irisgarri” batean egitera, Kulturklik bistaratuta funtsezko tresna gisa.

Argitaratutako edukiak

ARGITARATUTAKO EDUKIAK

KLK OROKORRA	
Agenda	28.192
Albisteak	1.447
Sorkuntzak	1.049
KLK PROFESIONALA	
Deialdiak	935
Agenda profesionala	643
Bereziak	37
Argitalpenak	122
Albisteak	277
Direktoria	55

Erabileraren datuak

ERABILERAREN DATUAK

WEB TRAFIKOA	
Erabiltzaileak	2.165.437
Saioak	4.322.460
Ikusitako orriak	6.595.544
BULETINA	
Bidalketak	52
Harpidetuak	4.597
SARE SOZIALAK	
Instagram	6.875
Facebook	7.376
X	8.527

4. Komunikazioa

Webgunea

Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunearen orrialde nagusian “Adierazle nagusiak” atala sartu da. Atal berri honen helburua da azterlan kuantitatibo berrienen datu garrantzitsuenak nabarmentzea.

Power BI

Datuak hobeto bistaratzeko eta eskuragarriago bihurtzeko, 2025ean txosten interaktibo bat egin da Power Blerekin, eta Behatokiaren orrialdean integratuko da.

Sare sozialetako estrategia

Behatokiak sare sozialetan duen irudia eta komunikazioa hobetzeko, 2025ean komunikabide sozialetako estrategia aztertzeke eta definitzeko lan bat egin da.

20. urteurrena

2026ko azaroan 20. urteurrena beteko du Kulturaren Euskal Behatokiak, eta hasiak dira ospakizun-ekitaldiaren aurreko prestakuntzak egiten: ekitaldiaren logotipoa prestatzen, materialak egiten, etab.

Prentsa-oharrak

Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak igorritako komunikazioak:

- 2025/03/26: Musikaren sektoreak Euskal Herrian 39,5 M € sortzen ditu eta bere hazkundea sendotu nahi du.
- 2025/08/18: Euskadik bere kultur eskaintza indartu du, 2025eko lehen seihilekoan 11.000 ekitaldi baino gehiago.

ERABILERAREN DATUAK

WEB TRAFIKOA	
Erabiltzaileak	16.864
Saioak	19.785
Ikusitako orriak	40.833
BULETINA	
Bidalketak	10
Harpidetuak	1.990
SARE SOZIALAK	
X	624



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

2025eko Memoria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

